ISSN: 2173-9102 D.L./L.G.: BI-1677-03

# Novedades bibliográficas de la Academia / Akademiaren argitalpen berriak



**30/01/2017**

**Título/Izenburua:** *Familia eta oinordetza zuzenbidea*

**Ed./Arg.:** Andrés M. Urrutia Badiola
Colección Lanbideak Bilduma, 5.

Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia-Gomylex, 2017.

**Número de páginas/Orrialde kopurua:** 349.

Don Andrés M. Urrutia Badiola, presidente de la AVD-ZEA, notario y profesor de la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto ha publicado recientemente el libro citado. Sus destinatarios son los alumnos de grado y máster y los profesionales jurídicos en general que quieran acercarse a estas materias del Derecho Civil en euskera. El libro está actualizado y contiene las modificaciones legales más recientes, siendo fruto de la experiencia académica y profesional del autor. También está adaptado a las exigencias de la formación en competencias de Europa, para que sea un instrumento eficaz de enseñanza. Es el número 6 de la Colección "Lanbideak" de la Academia Vasca de Derecho y se ha publicado por esta institución y la editorial Gomylex.

Andres M. Urrutia Badiola jauna, AVD-ZEAren burua, notarioa eta Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko irakasleak berrikitan argitaratu du goian aipaturiko liburua. Argitalpen berri honen har-

tzaileak dira unibertsitateko gradu eta master ikasketen ikasleak eta, era berean, zuzenbidearen jardule teoriko zein praktikoak, zuzenbide zibilaren arlo horietara euskaraz hurreratu nahi direnak. Liburuaren edukia eguneraturik dago azken lege eraldaketen arabera eta egilearen aurretiazko eskarmentu akademiko zein lanbidekoa du oinarri. Orobat, Europa mailan unibertsitate irakaskuntzaren eskakizun berriei ere egokiturik dago, tresna eragingarria izan dadin. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Lanbideak sailean 6. zenbakia du liburu berriak eta Akademiaren eta Gomylex argitaletxearen babespean argitaratu da.



**31/01/2017**

**Título/Izenburua:** *Ondareari buruzko zuzenbide berezia.*

**Ed./Arg.:** Andrés M. Urrutia Badiola.

Lanbideak Bilduma, 7.

Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia-Gomylex, 2017.

**Número de páginas/Orrialde kopurua:** 299.

Don Andrés M. Urrutia Badiola, presidente de la AVD-ZEA, notario y profesor de la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto ha publicado recientemente el libro citado. Sus destinatarios son los alumnos de grado y máster y los profesionales jurídicos en general que quieran acercarse a estas materias del Derecho Civil en euskara. El libro está actualizado y contiene las modificaciones legales más recientes, siendo fruto de la experiencia académica y profesional del autor. También está adaptado a las exigencias de la formación en competencias de Europa, para que sea un instrumento eficaz de enseñanza. Es el número 7 de la Colección "Lanbideak" de la Academia Vasca de Derecho y se ha publicado por esta institución y la editorial Gomylex.

Andres M. Urrutia Badiola jauna, AVD-ZEAren burua, notarioa eta Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko irakasleak berrikitan argitaratu du goian aipaturiko liburua. Argitalpen berri honen hartzaileak dira unibertsitateko gradu eta master ikasketen ikasleak eta, era berean, zuzenbidearen jardule teoriko zein praktikoak, zuzenbide zibilaren arlo horietara euskaraz hurreratu nahi direnak. Liburuaren edukia eguneraturik dago azken lege eraldaketen arabera eta egilearen aurretiazko eskarmentu akademiko zein lanbidekoa du oinarri. Orobat, Europa mailan unibertsitate irakaskuntzaren eskakizun berriei ere egokiturik dago, tresna eragingarria izan dadin. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Lanbideak sailean 7. zenbakia du liburu berriak eta Akademiaren eta Gomylex argitaletxearen babespean argitaratu da.




**22/09/2017**

**Título/Izenburua:** *Leyes civiles vascas-Euskal lege zibilak*

**Ed./Arg.:** Andrés M. Urrutia Badiola

IUSPLAZA Bilduma

Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia-IVAP/HAEE-Gomylex, 2017

**Número de páginas/Orrialde kopurua:** 300

La Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiak ha iniciado la publicación de la colección IUSPLAZA que tiene por objeto proporcionar los textos actualizados de la legislación vigente en la Comunidad Autónoma Vasca, junto con sus correspondientes índices analíticos, tanto en euskara como en castellano, utilizando para ello los soportes de su publicación en papel y a través de la página web www.iusplaza.com. En esta tarea, y al servicio de quienes operan en el mundo del Derecho, colaboran la Academia Vasca de Derecho y el Instituto Vasco de Administración Pública, con la participación de la editorial Gomylex. El primer volumen incluye las leyes civiles vascas vigentes.

Zuzenbidearen Euskal Akademiak hasiera eman dio bilduma berri bati, hain zuzen ere IUSPLAZA izenekoari. Bilduma berriak berebiziko helburua du, hain justu ere, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden lege testuen edukia euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzea, behar den bezala eguneratuak eta haiei dagozkien aurkibide analitikoak barneraturik. Xede horretarako erabili dira paperezko euskarria zein webgunea, www.iusplaza.com. Zuzenbidearen alorrean ari direnentzako zeregin horretan elkarrekin dihardute Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Gomylex argitaletxearen laguntzarekin. Lehen zenbakiak egun indarrean dauden Euskal lege zibilak barneratzen ditu.




**25/04/2018**

**Título/Izenburua:** *Leyes Civiles: Bienes Inmuebles / Lege Zibilak: Ondasun Higiezinak*

**Ed./Arg.:** Andrés M. Urrutia Badiola

IUSPLAZA Bilduma

Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia-IVAP/HAEE-Gomylex, 2018.

**Número de páginas/Orrialde kopurua:** 348

Pocas leyes serán objeto de una utilización tan frecuente dentro de la sociedad como la Ley 49/1960, de 21 de julio, sobre Propiedad Horizontal y la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos. Tanto en una ley como en la otra, lo que está en juego es el acceso a la vivienda por parte de los ciudadanos y las reglas de convivencia entre los diferentes titulares de las viviendas que comparten una serie de elementos comunes hoy en día imprescindibles para la vida moderna.

De ahí que en este segundo volumen *Leyes Civiles: Bienes Inmuebles / Lege Zibilak: Ondasun Higiezinak* de la Colección *Iusplaza* se ha procurado recoger con un criterio de utilidad, no solo la legislación dictada por el Estado en esta materia sino las disposiciones de diversa índole que se han promulgado durante estos últimos años en la Comunidad Autónoma del País Vasco y que resultan imprescindibles tanto para el operador jurídico como para el ciudadano interesado en el tema.

Todo ello conforma un nuevo volumen que mantiene las características primordiales de la Colección *Iusplaza*, a saber, el incluir los textos de las disposiciones normativas en versión bilingüe, castellano-euskera, euskera-castellano, abarcando la terminología y la dicción en ambas lenguas oficiales, que hoy son, siquiera en proporción diferente, instrumento de expresión y de aplicación del Derecho civil que se vive en la Comunidad Autónoma del País Vasco y que presenta en su realidad niveles de contratación arren-

daticia y utilización por las comunidades de propietarios, bien en forma oral, bien en forma escrita, de la lengua vasca que justifican una edición como esta, destinada a un público lo más amplio posible.

Una vez más, la Academia Vasca de Derecho – Zuzenbidearen Euskal Akademia y el Instituto Vasco de Administración Pública – Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, con la colaboración de la editorial Gomylex, ponen a disposición del público, tanto en papel como en la página web www.iusplaza.com un volumen de textos legales que son una herramienta básica para el quehacer diario de quienes trabajan en esta materia tanto en euskera como en castellano y, además, sirven de acicate para empresas posteriores.

Maiztasun handiko erabilera dute, ezbairik gabe, liburu honetara ekarri diren bi lege hauek: 49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, Jabetza Horizontalarena eta 29/1994 Legea, azaroaren 24koa Hiri-errentamenduena. Batean zein bestean, jokoan dagoena argi dago, alegia, herritarren eskubidea etxebizitza duina izateko eta aldi berean batera dituzten osagai erkide batzuen gozamenerako araubidea moldatzea, etxebizitza desberdinen titularrei dagokienez. Horra, bada, egungo bizimoduaren ezinbesteko baldintza.

Esan gabe doa, beraz, *Iusplaza* Bilduma honen bigarren liburuan, *Leyes Civiles: Bienes Inmuebles / Lege Zibilak: Ondasun Higiezinak* titulupean bilbatu egin direla, erabilgarritasunaren indarrez, Estatuak berak emandako xedapenak eta orobat, Euskal Autonomia Erkidegoak azken urteetan eman eta argitaratu dituen xedapenak, ustez horiek batera ekartzea ezinbestekoa dela, nahiz jardule juridikoarentzat nahiz gai honetan jakin-mina duen herritar ororentzat.

Hartara, liburu berri dator *Iusplaza* Bildumara, hain zuzen ere, bilduma horren ezaugarriak berrestera datorrena. Batetik, lege-testu oinarrizkoak barneratzea eta gizarteratzea, molde elebidunean, gaztelania-euska-

ra, euskara-gaztelania, bi hizkuntza ofizial horien terminologia eta esamoldeak bilduz, bi-biak gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarri den Zuzenbide zibilaren eramaileak baitira. Zer esanik ez, bai errentamendu arloan, bai jabe-erkidegoen eremuan badira, ahotsez zein idatziz, euskararen erabilera agerikoak, eta horiek ahalbidetzen eta egiaztatzen dute tankera honetako argitaraldia, jardule juridikoak ez ezik, herritar guztiak ere kontuan hartzen dituena.

Beste behin ere, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Gomylex argitaletxearen laguntzarekin, berebiziko ekimena ondu dute gizartearen esku jartzeko, modu inprimatuan zein webgune bidez (www.iusplaza.com), lege-testuen liburu elebidun hau, gaztelaniaz eta euskaraz, eguneroko tresna izan nahi duena gizarte elebidun batentzat, eta bide beretik, geroko ahaleginen aitzindari eta bultzagilea.




**12/06/2018**

**Título/Izenburua:** *Haciendo memoria*

**Ed./Arg.:** Ricardo de Ángel Yágüez

Abeurrea Bilduma, 14

Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia.

**Número de páginas/Orrialde kopurua:** 384

El 7 de junio ha tenido lugar el acto de presentación del libro *Haciendo Memoria* del Socio de Honor de la Academia Vasca de Derecho don Ricardo de Ángel Yágüez. El acto se ha celebrado bajo la presidencia del autor del libro, don Ricardo de Ángel Yágüez, del autor del prólogo, don Luis Abril, del Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, don Juan Luis Ibarra Robles, del Decano del Ilustre Colegio Notarial del País Vasco, don Diego María Granados Asensio y del presidente de la Academia Vasca de Derecho, don Andrés Urrutia Badiola en la sede del Colegio Notarial del País Vasco.

Ekainaren 7an, Ricardo de Ángel Yágüez jaunaren, Akademiaren Ohorezko Bazkidearen, *Haciendo Memoria* liburua aurkeztu da Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuaren egoitzan. Ekitaldiaren mahaiburuak izan dira, besteak beste, liburuaren egilea, Ricardo de Ángel Yagüéz jauna, sarreraren egilea, Luis Abril jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakaria, Juan Luis Ibarra Robles jauna, Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuaren dekanoa, Diego María Granados Asensio jauna eta Zuzenbidearen Euskal Akademiaren lehendakaria, Andres Urrutia Badiola jauna.




VD·ZEA
Zuzenbidearen
Euskal
Akademia
Haciendo memoria


AVD·ZE
Zuzenbidearen
Euskal
Akademia
www.avd-zea.com



**6/09/2018**

**Título/Izenburua:** *Praxis de Derecho civil vasco*

**Ed./Arg.:** Andrés M. Urrutia Badiola

Lanbideak Bilduma, 9

Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia-Gomylex, 2018.

**Número de páginas/Orrialde kopurua:** 592

La Academia Vasca de Derecho ha publicado el libro *Praxis de Derecho civil vasco*. El libro consta de 591 páginas y es un elemento imprescindible para la aplicación práctica de las Leyes 5/2015 y 7/2015 del Parlamento Vasco sobre Derecho civil vasco. Contiene 75 formularios de carácter notarial y extrajudicial, 62 de carácter judicial y procesal, 5 de Derecho hipotecario y 5 de Derecho sucesorio europeo, todos ellos relacionados con el Derecho civil vasco. El libro se ha elaborado por un grupo de juristas (abogados, notarios, registradores de la propiedad y magistrados) con la participación especial del Grupo de Estudio de Derecho civil vasco del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia, todo ello bajo la dirección y coordinación de don Andrés M. Urrutia Badiola, notario y presidente de la Academia Vasca de Derecho.

Zuzenbidearen Euskal Akademiak *Praxis de Derecho civil* vasco liburua argitaratu du. Liburua Andres M. Urrutia Badiola jaunaren zuzendaritzapean egin da, jardule juridiko batzuen parte-hartzearekin. Liburu horren helbururik behinena da Euskal zuzenbide zibilaren aplikazioa erraztea eragile juridikoen aldetik, jardun praktikorako lanabesa eskainiz.




**Título/Izenburua:** *Derecho financiero y tributario foral vasco. Parte general*

**Ed./Arg.:** Andrés M. Urrutia Badiola

Lanbideak Bilduma, 7

Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia-Gomylex, 1ª ed. 2017 y 2ª edic. 2018.

**Número de páginas/Orrialde kopurua:** 400

Este libro analiza las peculiaridades del régimen tributario y presupuestario de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, respecto al sistema de régimen común que dibuja la Ley General Tributaria. En este sentido, las Juntas Generales de los tres Territorios Históricos aprobaron sendas Normas Forales Generales Tributarias, que entraron en vigor a partir de 1 de julio de 2005 y que han sido reformadas sustancialmente en 2017. La obra comprende la parte general del Derecho Financiero y Tributario, siguiendo principalmente la sistemática de las Normas Forales Generales Tributarias. No obstante, el libro se centra básicamente en el tributo y todo lo que este lleva aparejado y únicamente le dedica a otros aspectos del Derecho Financiero, y no de forma exclusiva, dos partes: la primera referida a cuestiones introductorias y la última referida a los Presupuestos de los entes públicos, sin olvidar un análisis pormenorizado del Concierto Económico Vasco debido a su trascendencia para las Haciendas Forales y el Gobierno Vasco. El libro se publica dentro de la colección Lanbideak de la Academia Vasca del Derecho, con el número 8. La primera edición se publicó en 2017 y la segunda en 2018.

Liburu honetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen tributu- eta aurrekontu-araubideko ezaugarriak aztertzen dira, Tributuen Lege Orokorrak zedarritutako araubide erkideko sistemarekin alderatuta. Ildo horretatik, hiru Lurralde Historikoen Batzar Nagusiek Tributuen Foru

Arau Orokor bana onetsi zuten, eta 2005eko uztailaren 1etik aurrera indarrean jarri ziren, 2017an sakon aldatu izan badira ere. Liburuak Finantza eta Tributu Zuzenbidearen zati orokorra jorratzen du, Tributuen Foru Arau Orokorrek ezarritako sistematika, ahal dela, jarraituz. Nolanahi den ere, liburua tributuan gehienbat ardaztu da, bai eta tributuak berarekin dakarren guztian ere; Finantza Zuzenbideko gainerako alderdiei bi zati soilik uzten die, eta ez modu esklusiboan: lehenengoa, sarrerako kontuei buruzkoa, eta azkena, erakunde publikoen aurrekontuei buruzkoa. Bestetik, ezin ahatz daiteke Euskal Ekonomia Itunaren azterketa sakona, Foru Ogasunentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat duen garrantzia dela-eta. Amaitzeko, liburua Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Lanbideak bilduman argitaratu da, 8. zenbakiarekin. Lehenengo argitaraldia 2017an egin zen eta bigarrena 2018an.